Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko abuztuaren 10a, ostirala — 154 — Viernes, a 10 de agosto de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## IRUNGO UDALA

*Iragarkia*

Udal honetako Alkatetza-Lehendakaritzak 1372 zenbakiko ebazpena eman du, 2018ko uztailaren 13koa:

1. Irunvi Irungo Etxebizitzaren Elkarte Publikoa SAUri enkargatzea irisgarritasunaren gaiko diru-laguntza osagarriak kudeatu ditzan.

2. Onestea Irungo Udalak Irunvi Irungo Etxebizitzaren Elkarte Publikoa SAUri kudeaketa-agindua eman diezaion, irisgarritasunaren gaiko diru-laguntza osagarriei buruzko laguntzak kudeatu ditzan.

3. Ahalmena ematea alkateari daukan ordezkaritza erabiliz agindua formalizatzeko tresna hau sinatu dezan: alde biek sinatzen dutenean hasiko da agindu hori gauzatzen.

4. Agintzea Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

5. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahalko da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik; edo, bestela, zuzenean aurkaratu, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahalko da.

Irun, 2018ko uztailaren 27a.—Alkateak eskuordetuta, M.ª Teresa Fernandez, Hirigintza eta Garapen Iraunkorrako Administrazio Unitateko burua. (5576)

### KUDEAKETA AGINDUA

*Irungo Udalaren eta Irungo etxebizitza publikoaren elkartea SAU-ren artean irisgarritasunaren gaiako dirulaguntzei buruzko laguntzak kudeatzeko.*

Irun, 2018ko uztailaren 25a.

Nire aurrean, Juana María Herrador, Irungo Udaleko idazkari nagusia

BILDU DIRA

Alde batetik, José Antonio Santano Clavero jauna, Irungo Udaleko alkate-lehendakaria.

Eta bestetik, Miguel Ángel Páez Escamendi, Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SAUko kontseilaria, dokumentu hau sinatzeko berariaz ahaldundua Administrazio Kontseiluak 2018ko uztailaren 17ean onartutako erabakiaren bidez.

Bi aldeek, nork bere erakundearen izenean eta ordezkaritzan, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horren arabera,

## AYUNTAMIENTO DE IRUN

*Anuncio*

Con fecha 13 de julio de 2018, por la Alcaldía-Presidencia de este Ayuntamiento, ha sido dictada la siguiente Resolución n.º 1372:

1.º Encargar a la Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU (Irunvi), la gestión de las Subvenciones complementarias en materia de accesibilidad.

2.º Aprobar la gestión de las Ayudas relativas a Subvenciones complementarias en materia de accesibilidad mediante encomienda de gestión del Ayuntamiento de Irun a la Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU (Irunvi), según documento adjunto.

3.º Facultar al Alcalde para que en la representación que ostenta suscriba el instrumento de formalización de la encomienda que dará comienzo una vez suscrito por ambas partes.

4.º Disponer la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

5.º La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Irun, a 27 de julio de 2018.—El alcalde, p.d., la jefa de la Unidad Admva. de Urbanismo y Desarrollo Sostenible, M.ª Teresa Fernandez. (5576)

### ENCOMIENDA DE GESTIÓN

*Entre el Ayuntamiento de Irun y la sociedad pública de vivienda de Irun SAU para la gestión de las ayudas relativas a subvenciones complementarias en materia de accesibilidad.*

En Irun, a 25 de julio de 2018.

Ante mí, Juana María Herrador Secretaria General del Ayuntamiento de Irun

REUNIDOS

De una parte, D. José Antonio Santano Clavero, Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Irun.

Y de otra, Miguel Ángel Páez Escamendi, Consejero de Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa / Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU, facultado expresamente para la firma del presente documento, en virtud del acuerdo del Consejo de Administración del 17 de julio de 2018.

Ambas partes, en nombre y representación de las respectivas entidades, se reconocen competencia y capacidad para suscribir el presente encomienda y en su virtud

EK\CV GAO-I-2018-05576

AZALTZEN DUTE

1. Pertsona edo entitate publiko edo pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuna emateko, Administrazio Publikoen jarduera asko diru-laguntzen bidez bideratzen da, interesgarritzat hartzen diren jokabide jakin batzuk sustatzeko eta interes publikoko jardueretan laguntzeko.

2018ko diru-laguntzen deialdi orokorreko irisgarritasunaren gaiko diru-laguntza osagarriei buruzko 35. Eranskinaren xedea da bizitegi-eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko diru-laguntzak emateko baldintzak erregulatzea.

Zehazki, bide publikotik eraikin-multzo bateko atariak dauden plataforma edo leku pribatuetara iristea errazten duten proiektu eta jarduketak lagunduko dira diruz.

Irtenbideek aukera emango dute irisgarritasunari buruzko araudira hobeto egokitzeko, eta barne hartuko dituzte igogailuak jartzea eta egungo komunikazio-egiturak berritzea.

2. Irungo Udalak Irunvi Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SAUren (aurrerantzean Irunvi) laguntza nahi du, aurreko adierazpenak aipatzen dituen diru laguntzak kudeatzeko.

3. Irunvi Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SAU zuzenbide pribatuaren peko kapital publikoko sozietate bat da, eta haren xedea da etxebizitzak eta nolanahiko ostatu, lokal eta aparkalekuak sustatzea, eraikitzea eta kudeatzea, eta baita Lehenengo Azalpenak aipatzen dituen gainerako lanak egitea ere.

4. Sozietateak Irungo Udalaren berezko bitartekoaren izaera du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 32 artikuluan xedatzen denaren arabera eta 2009ko martxoaren 25eko akziodunen batzarrean erabaki bezala.

5. Sektore publikoko kontratuei buruzko Legea onesten duen 9/2017 Legearen 6.3. artikuluaren arabera, haren aplikazio-eremutik kanpo daude «sektore publikoaren araubide juridikoaren gaian indarrean dagoen legedian araututa dauden kudeaketa-aginduak».

6. Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluak arautzen ditu administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak egiteko kudeaketa aginduak, efikazia-arrazoiengatik edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago.

7. Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluaren arabera, «nolanahi ere, gomendioa jasotzen duen entitate edo organoa izango da kudeaketa gomendioa egikaritu bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta datu pertsonalen babeserako araudian xedatuta dagoena aplikatuko zaio».

8. Irungo Udalak 2017-04-26ko osoko bilkuran onetsi zuen (2017-06-29ko 124 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua) Irungo Udalaren deialdiaren bidezko diru-laguntzak emateko Oinarriak Arautzen dituen Ordenantza Orokorra. Ordenantza horren 3. Artikuluan, aukera jasotzen da Erakunde Kolaboratzaileek lagundu dezaten diru-laguntzak kudeatzen, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

9. Alkatetzaren 2018ko uztailaren 4ko Ebazpenaren bidez, honako hau erabaki zen: onestea irisgarritasunaren alorreko diru-laguntza osagarriei buruzko 2018ko diru-laguntzen Deialdi Orokorraren 35. eranskina (408424 kode-zenbakiarekin

EXPONEN

1. Que con el objeto de dar respuesta a demandas sociales y económicas de personas y entidades públicas o privadas, una parte importante de la actividad de las Administraciones Públicas se canaliza a través de subvenciones, fomentando determinados comportamientos considerados de interés y colaborando con actividades de interés público.

El Anexo 35 a la Convocatoria general de subvenciones 2018, Subvenciones complementarias en materia de accesibilidad tiene por objeto la regulación de las condiciones de concesión de ayudas económicas en mejoras de accesibilidad en conjuntos edificatorios residenciales.

En concreto, se subvencionaran los proyectos y las actuaciones que faciliten la accesibilidad desde la vía pública hasta las plataformas o espacios de carácter privado donde se localizan los diferentes portales de un mismo conjunto edificatorio.

Las soluciones permitirán una mayor adecuación a la normativa de accesibilidad e incluirán la instalación de ascensores y la reforma de las actuales estructuras de comunicación.

2. Que el Ayuntamiento de Irun está interesado en contar con la colaboración de la sociedad Irungo Etxebizitzarako Elkarte Públikoa / Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU (en adelante Irunvi), para la gestión de las subvenciones a que se refiere el expositivo anterior.

3. Que Irungo Etxebizitzarako Elkarte Públikoa / Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU es una sociedad de capital público sujeta a Derecho privado cuyo objeto social comprende la promoción, construcción y gestión, de viviendas y cualquier otro tipo de alojamientos, locales y aparcamientos, además del resto de los trabajos que se recogen el Expositivo Primero.

4. Que la Sociedad tiene la condición de medio propio del Ayuntamiento de Irun de acuerdo con lo previsto en el artículo 32 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y tal y como se acordó en la Junta de Accionistas de fecha 25 de marzo de 2009.

5. Que a tenor del artículo 6.3 de la Ley 9/2017, por el que se aprueba la Ley de Contratos del Sector Público, están excluidos del ámbito de la misma «las encomiendas de gestión reguladas en la legislación vigente en materia de régimen jurídico del sector público».

6. Que el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público regula la encomienda de gestión para la realización de actividades de carácter material, técnico o de servicios de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho público, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.

7. Que a tenor de lo establecido en el citado artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, «en todo caso, la Entidad u órgano encomendado tendrá la condición de encargado del tratamiento de los datos de carácter personal a los que pudiera tener acceso en ejecución de la encomienda de gestión, siéndole de aplicación lo dispuesto en la normativa de protección de datos de carácter personal».

8. Que el Ayuntamiento de Irun aprobó en sesión plenaria de fecha 26-04-2017 (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 124, de 29-06-2017) la Ordenanza General Reguladora de las Bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Irun, en cuyo artículo 3.º se contempla la posibilidad de contar con Entidades Colaboradoras para colaborar en la gestión de subvenciones, a los efectos de lo previsto en el artículo 12, apartados 2 y 3 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

9. Que por Resolución de Alcaldían.º 1327 de fecha 4 de julio de 2018 se acordó: aprobar el Anexo n.º 35 a la Convocatoria General de Subvenciones 2018, Subvenciones complementarias en materia de accesibilidad (publicada en la Base de

Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean argitaratua, eta haren laburpena 2018ko uztailaren 19(e)ko 139 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

KLAUSULAK

*Lehena.*

Agindu honen helburua da finkatzea nola kudeatuko dituzten elkarlanean Irungo Udalak eta Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SAUk irisgarritasunaren gaiko diru-laguntza osagarriei buruzko laguntzak.

*Bigarrena.*

Entitate laguntzaile gisa, aurkezten diren eskabideak kudeatzeaz eta laguntzak izapidetzeaz arduratuko da Irunvi, eta, tartean, laguntzak indarrean dauden bitartean egiten diren ordainketak justifikatuko ditu.

Deialdia arautzen duten oinarriek zehaztuko dute zer epetan eta modutan egiaztatu beharko duten onuradunek diru laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituztela.

*Hirugarrena.*

Entitate laguntzaileak ez du jasoko ordain ekonomikorik.

*Laugarrena.*

Agindu honetan aurreikusitako funtzioan betetzeko, irisgarritasunaren gaiko diru-laguntza osagarriei buruzko Laguntza Deialdiak finkatutakoa bete beharko du (Diru-laguntzen Datubase Nazionalean 408424 zenbakiko kodeaz argitaratua eta horren laburpena 2018ko uztailaren 19an, 139 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua). Halaber, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren artikuluetan xedatzen dena ere bete beharko du. Bereziki, entitate laguntzailearen betebeharra izango da diru laguntzak emateko baldintza edo eskakizunak betetzen direla egiaztatzea, baita diruz laguntzen den jarduera egiten dela eta, zertarako ematen den diru laguntza, helburu hori betetzen dela egiaztatzea ere, 38/2003 Lege Orokorraren 15.1.b) artikuluarekin bat etorriz.

Era berean, Irunvik bere gain hartuko ditu 35. eranskinak aipatzen dituen laguntzak emateko, eskabideak bideratzen dituen entitatea den aldetik ebazpenak emateko eta laguntza horiek kudeatzeko beharrezkoak diren proposamenak egiteko lanak.

*Bosgarrena.*

Agindu hau, soil-soilik, bertan definitutako xedea betetzeko ematen da, eta aipatutako deialdian laugarren klausulan erregulatzen diren laguntzak emateko eta justifikatzeko prozesua amaitu arte egongo da indarrean.

*Seigarrena.*

Agindu honek administrazio-izaera du, eta administrazioarekiko auzien ordena jurisdikzio-ordenaren aurrean aurkaratu ahalko da.

*Zazpigarrena.*

Datu pertsonalen babesa.

Irunvik izendatzen dituen pertsonak baimenduko ditu Irungo Udalak beharrezkoak diren datuak kontsultatzeko, betiere agindu honen eremuko prozedura zehatzaren arabera, eta, zehazki, betebehar fiskalak eta gizarte segurantzarekikoak betetzeari buruzkoak, horiek baitira Irungo udalaren eta beste Administrazio Publikoen artean elkarreragingarritasunerako hitzartutako hainbat hitzarmenen xedea.

Datos Nacional de Subvenciones con el código n.º 408424 y extracto de la misma publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 139 de fecha 19 de julio de 2018).

CLÁUSULAS

*Primera.*

El presente encomienda pretende establecer el cauce de colaboración entre el Ayuntamiento de Irun e Irungo Etxebizitzarako Elkarte Públikoa / Sociedad Pública de Vivienda de Irun SAU para la Gestión de las ayudas relativas a subvenciones complementarias en materia de accesibilidad.

*Segunda.*

La función de Irunvi como Entidad Colaboradora consistirá en la gestión de las solicitudes realizadas y tramitación de las ayudas, incluyendo la justificación de los pagos realizados durante el periodo de vigencia de estas ayudas.

El plazo y la forma de justificación por parte de los beneficiarios del cumplimiento de las condiciones para el otorgamiento de las subvenciones será la detallada en las bases que rigen la Convocatoria.

*Tercera.*

No se fija contraprestación económica a favor de la entidad colaboradora.

*Cuarta.*

La Entidad Colaboradora Irunvi se regirá para el cumplimiento de las funciones previstas en el presente encomienda por lo establecido en la Convocatoria de Ayudas relativas a subvenciones complementarias en materia de accesibilidad (publicada en la Base de Datos Nacional de Subvenciones con el código n.º 408424 y extracto de la misma publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 139 de fecha 19 de julio de 2018) así como por lo establecido en el articulado de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. En particular, será obligación de la entidad colaboradora comprobar, en su caso, el cumplimiento y efectividad de las condiciones o requisitos determinantes para su otorgamiento, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención, de acuerdo con lo previsto en el apartado 1.b) del artículo 15 de la Ley 38/2003.

Asimismo Irunvi asume las tareas de formular propuestas de concesión, de resolución de recursos, en su caso, como entidad canalizadora de las solicitudes y formular cuantas propuestas resulten precisas para la gestión de las ayudas a que se refiere el anexo 35.

*Quinta.*

El presente encomienda se circunscribe exclusivamente al cumplimiento del objeto en él definido y estará vigente hasta completar el proceso de concesión y justificación de las ayudas reguladas en la convocatoria citada en la cláusula cuarta, o como máximo hasta el 31 de diciembre de 2020.

*Sexta.*

El presente encomienda tiene naturaleza administrativa, y podrá ser impugnado ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

*Séptima.*

Protección de datos de carácter personal.

Las personas que designe sociedad pública de vivienda de irun SAU serán autorizadas por el Ayuntamiento de Irun para consultar los datos necesarios según procedimiento concreto del ámbito de la presente encomienda y en particular, los referidos al cumplimiento de obligaciones fiscales y con la seguridad social objeto de diversos convenios de interoperabilidad concertados entre el Ayuntamiento de Irun y otras Administraciones Públicas.


EK\CV GAO-I-2018-05576

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluak xedatzen dena betetzeko, hirugarrenak datuetara sartu daitezen, Irunvik ez ditu bideratuko, aplikatuko edo erabiliko erabilgarri dauzkan datuak agindu honetan azaltzen den helburua ez den beste helburuetarako edo Irungo Udalak berariaz ematen dizkion instrukzioak ez betetzea ekarri lezakeen beste edozein erabilpenetarako. Era berean, konpromisoa hartzen du fitxategiak edo haietan jasotako datuak beste pertsona batzuei ez ezagutarazteko, besterentzeko, uzteko edo bestela jakinarazteko, dela ahoz, dela idatziz, bitarte elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoaren bidez; ezta haiek kontserbatzeko ere.

Eta horrekin guztiarekin bat datozela agertzeko, aldeek formalizazio-tresna hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.

En cumplimiento de lo estipulado por el artículo 12 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal para el acceso a datos por cuenta de terceros, sociedad pública de vivienda de Irun SAU o destinará, aplicará o utilizará los datos a los que tenga acceso con fin distinto al que figure en el presente encomienda o de cualquier otra forma que suponga un incumplimiento de las instrucciones expresas que el Ayuntamiento de Irun le proporcione. Igualmente, se compromete a no revelar, transferir, ceder o de otra forma comunicar los ficheros o datos contenidos en ellos, ya sea verbalmente o por escrito, por medios electrónicos, papel o mediante acceso informático, ni siquiera para su conservación, a otras personas.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede se firma el presente instrumento de formalización en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.